BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

1659

39/2014 EBAZPENA, martxoaren 24koa, Funtzio Publikoko zuzendariarena, zeinen bidez ebazten baita Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salari 66/2014 prozedura arrunteko administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren administrazio-espedientea igor dakiola, eta epatzen baita interesdun izan daitezkeenak aipatu salan ager daitezela.

Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salak 66/2014 prozedura arrunteko administrazio-espedientea bidaltzeko eskatu du, zein Alberto Esteras Martinezek eta beste seik aurkeztu baitzuen Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailaren azaroaren 26ko 452/2013 Dekretuaren aurka. Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko sail eta erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak onartzeari buruzko Dekretua aldatzen du.

Horregatik, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 38., 48. eta 49. artikuluetan agindutakoa betez, honako hau

EBAZTEN DUT:

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salari eskatu duen administrazio-espedientea bidaltzea.

2.– Espediente horretan interesdun izan daitezkeenei bederatzi eguneko epea ematea, aipatu auzitegiko Administrazioarekiko Auzietako Salan ager daitezen.

3.– Errekurtso horretan bultzatzen zen administrazio-jarduerarekin lotura daukaten honako administrazioarekiko auzi-errekurtso hauek daudela jakinaraztea:

3.1.– Administrazioarekiko 65/2014 auzi-errekurtsoa (prozedura arrunta), «Asociación de Inspectores de Trabajo y Seguridad Social del País Vasco»k aurkeztua Justizia eta Herri Administrazio Sailaren maiatzaren 8ko 452/2013 Dekretuaren aurka. Dekretu horrek onartu baitzituen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sail eta erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak. Auzi-errekurtso hori Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salaren 3. sekzioan bideratzen ari da.

3.2.– Administrazioarekiko 67/2014 auzi-errekurtsoa (prozedura arrunta), «Asociación de Inspectores de Trabajo y Seguridad Social del País Vasco»k aurkeztua Justizia eta Herri Administrazio Sailaren maiatzaren 8ko 452/2013 Dekretuaren aurka. Dekretu horrek onartu baitzituen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sail eta erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak. Auzi-errekurtso hori Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salaren 3. sekzioan bideratzen ari da.

4.– EHAAn argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko martxoaren 24a.

Funtzio Publikoko zuzendaria,
JUAN M.ª BARASORDA GOICOECHEA.